

BOXEOKO BERARIAZKO ARAUAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren izena.

SOKASALTOKO SOKA: koordinazioa, abiadura, trebetasuna, metatartsianoak bermatzea, oinak txandakatzea, eritmoa.

ITZALA, guardia posizioa, lekualdatzeak, defentsak, kolpeen ibilbidea, kolpe konbinazioa.

ZAKUA, guardia posizioa, lekualdatzeak, kolpeen ibilbidea, kolpe konbinazioa, eraso tekniken potentzia

ESKUZORROAK, kolpeen ibilbidea, kolpe konbinazioa, lekualdatzeak, babesak, distantzia une bakoitzean, eraso tekniken potentzia

2. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren joko-arauak.

Orain, jarduera 1. agertokian modu seguruagoan egiteko beharrezkoak diren **joko-arauen egokitzapenak** aurkeztuko ditugu. Horrela, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak aurkeztutako **jarduketa arau orokorretan** ezarritakoa errespetatuko da.

ROUNDAK 3 x 3 minutuko

- Boxeoko materiala kirolariek eramango dute.
- Boxeolariak maskara eraman beharko du rounden artean.
- Boxeolariari deituta, ringean dagokien eremura joango dira, eta bere izkinan egongo da, guardian, eskularruak jarrita.
- Arbitroari agurtuta, roundari hasiera emango dio.
- Rounda amaitutakoan, boxeolariak bere izkinatik agurtuko du arbitroa. Ez du eskularruekin agurtuko.

Zuzeneko kanporaketa fasean

Aurretik adierazitakoaz gain, hauxe gaineratuko da:

- Atsedena hartzen den minutuan boxeolariak bere eremura joan beharko du, eta 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatu beharko du bere entrenatzailearekin.
- Rounda amaituta, beren izkinatik agurtuko dute. Ez dute eskularruekin agurtuko.
- Lehiaketa amaitutakoan, kirol-eremua utzi beharko du.

Lehiaketaren lau faseetarako

Eskularruak kontrolatu behar baditu, arbitroa boxeolari bakoitzarengana joango da, eta guardian jarrita daudela, aztertuko ditu. Eskularrua ez ukitzeko, ringaren sokan bermatuko du, aztertzen dituen bitartean.

3. Kirol federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduketa-arauak.

Berezko joko-arauez gain, jarduerak eta lehiaketak segurtasunez garatzeko kontuan hartu beharreko jarduketak hauek ezarri ditu, Covid-19aren egoera bereziaren barruan.

INSTALAZIORAKO SARBIDEA

Pertsona hauek bakarrik sar daitezke kirol-eremura. Gainerakoek harmailetan egon beharko dute, arau orokorren K. puntua (**Edukierak**) errespetatuz.

- Kirolariak
- Entrenatzaileak
- Arbitroak

- Antolatzaileak
 - Zuzendari teknikoa
 - Boluntarioak
 - Instalazioko langileak
- Erakunde publikoetako pertsonak

BARRUKO EREMUAK

Kirol-instalazioaren barruko eremuak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, noraezean ez ibiltzeko.

Hauek dira barruko eremuak:

- **Lehiaketa-eremua:** Ringa edo tatamia izango da. Lehiaketen artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatu beharko da. Sarrera eta irteera bereiziko dira, kirolariak euren artean gurutzatu ez daitezten.
- **Zuzendaritza teknikoaren eremua:** emaitzak kudeatzeko ordenagailuak kokatzen diren mahaiak eta lehiaketako arduradunen tokia izango dira. Elementu bereizgailuek mugatuko dute, informazioa eskatzen duten pertsonekin 1,5 metroko distantzia mantentzeko.
- **Arbitroen eremua:** arbitroentzat utzitako eremua. Esertzen diren aulkiak 1,5 metroko egongo dira, segurtasun-distantzia bermatzeko.

ARBITROAK

- Arbitroek pistatik gutxienez 1,5 metroko distantziara arbitratu beharko dute.
- Arau orokor gisa, segurtasun-distantzia mantentzen saiatuko dira beti, eta ezin bada, maskara erabiliko da.
- Arbitroek beren materiala eraman beharko dute, hala nola, maskara, txartelak, galgak...

- Kirolarien poule bakoitza aztertuko dute aulkien eremuan.
- Arbitroak tresnen urrutiko agindua erabiliko du, lan horretarako laguntzailerik ez delako egongo. Poule eta zuzeneko kanporaketako round bakoitzaren ondoren urrutiko agindua likido desinfektatzailez garbituko du.

ZUZENDARITZA TEKNIKOA

- Zuzendaritza teknikoak osatzen duten mahai kopuruak nahikoa izan beharko du zuzendaritza osatzen duten kideen artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia mantentzeko.
- Kide guztiek maskara eramango dute.
- Pertsona bat izendatuko da emaitzen orriak entregatzeko eta jasotzeko.
- Banan-banan hurbildu behako da ZTra, segurtasun-distantzia banatuz.

BOXEOKO MATERIALA

Jadanik azaldutakoaz gain, boxeoko materiala da osasun arloan gehien kezka dezakeen alderdietako bat. Oro har, boxeoko materiala norberarena da, baina materiala ikastetxekoa edo erakunde antolatzailearena bada, hau egin beharko da:

- Eskularruak, zakuak, kaskoak eta bestelakoak desinfektatu.
- Lehiaketa osoan, amaitu arte, erabiliko duen kirolariari ematea material hori.
- Material hori norberak bakarrik erabiliko du.
- Lehiaketa amaitutakoan zentroko arduradunari itzuliko diote.

GARAIKURRAK ETA DOMINAK ENTREGATZEKO PROTOKOLOA

- Podiumean 1,5 metroko distantzia utzi beharko da kirolarien artean.
- Kirolariek erretilu edo kuxin batean jaso beharko dituzte dominak.

- Kirolariei podiumera maskara jarrita igotzea aholkatzen zaie.
- Agintariek maskara eta erabili eta botatzeko eskularruak eraman beharko dituzte.
- Podiumera igotzeko itxaroten ari diren kirolarientzat lerroak markatuko dira lurrean, gutxienez 1,5 metroko distantziara daudenak.
- Boluntario batek bakarrik prestatuko ditu erretiluetan edo kuxinetan joango diren garaikur eta dominak.
- Boluntarioak garaikurrak entregatu ondoren erretilu edo kuxin bakoitza desinfektatu beharko du.
- Maskara eta erabili eta botatzeko eskularruak erabili behar ditu boluntarioak.
- Kirolariak euren artean ezin dira eskuekin eta besarkadekin agurtu.
- Agintariek eta kirolariek maskara ken dezakete zeremonien amaierako argazkirako, betiere eskatutako gutxieneko distantzia mantentzen badute eta ez badu elkar ukitzen.

4. Parte hartzen duten erakundeek garatzen dituzten entrenamendu eta saioetarako jarduketa-arauak.

- Zentro edo klubetan egindako entrenamendu edo saioetan, norberaren materiala desinfektatu beharko da, higiena mantentzeaz gain.
- Bere materiala duten kirolariak haien arduradunak izango dira, eta ezingo diete hirugarrenei utzi.
- Denek erabiltzen duten materiala kirolariek desinfektatuko dute saio bakoitza amaitutakoan, protokolo honi jarraituz:
 - Eskularruetan biruzida bota beharko da saio bakoitzaren ondoren, kanpoko inguru osoan.
 - Gainerako materialak prozesu berari jarraituko dio, eta saioaren amaieran 60 °-tan garbitu beharko da.
 - Zakua eta eskuzorroa biruzidaz ere desinfektatuko dira.
- Materiala biltzera sartzeko, materialaren aretora sartzeko txanda errespetatuko da, jende gehiegi ez pilatzeko.

- Ikasle bakoitza bere materialaz arduratuko da aretoan, kidearekin segurtasun-distantzia errespetatuz.
- Aretora sartzean gel hidroalkoholkoa egongo da eskuetarako.